

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN ORRIA

PROIEKTURAKO IDEIEN LEHIAKETA

GOGORA INSTITUTUAREN ERAKUSKETA-ESPAZIO BERRIA

ERAIKINEKO PATIOAN (MARIA DIAZ HAROKOA, 3 BILBO)

2021EKO MAIATZA

Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen Institutua

Gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Elisabete Añabarro
ELISABETE AÑABARRO
ELISABETE AÑABARRO

Elisabete Añabarro
ELISABETE AÑABARRO
GOBIERNO VASCO

1	KONTRATUAREN OBJEKTUA.....	2
2	SUSTATZAILEA	3
3	AURREKARIAK, MEMORIAREN PLAZA.....	5
4	ERAKUSKETA-ESPazio BERRIAREN NORTASUNA	6
5	LEHENDIK DAGOEN ERAIKINA	10
6	HIRIGINTZAKO EGOERA.....	11
7	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA	12
8	EKT BETETZEA – SEGURITASUNA SUTEAK DAUDENEAN	14
9	PREMIEN MEMORIA.....	15
10	ORDAINSARIAK	16
11	IRIZPIDEAK.....	18
12	ESKAINZAN BALORATUKO DEN PROPOSAMEN GRAFIKOA	19
13	LIZITATZAILEAREN LANTALDEAREN ANTOLAMENDUA	19
14	PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA	20
15	INSTALAZIOAK BISITATZEA	20
16	KAUDIMENA ETA GAITASUNA	20
17	EPAIMAHAIA.....	21
18	DOKUMENTAZIOA	22
19	PROPOSAMENEN ANONIMOTASUNA	23
20	GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIA	23
	ERANSKINAK	24
1	ERANSKINA -J ARDUKETAREN OBJEKTU DEN ESPAZIOAREN PLANOAK	25
2	ERANSKINA – EGITURA-AZTERKETA	27
3	ERANSKINA – ERAKUSKETA-KANPAIEN NEURRIAK.....	28
4	ERANSKINA – ERAKUSKETA-PROIEKTURAKO ONARTUTAKO OINARRIAK.....	30

1 KONTRATUAREN OBJEKTUA

Gogora Institutuak esku hartzeko proiekturako ideien lehiaketa deitzen du, Bilboko Maria Diaz Haroko kaleko 3 zenbakian dagoen eraikineko patioan erakusketa-espazio berri bat eratzeko. Eraikineko patioan dagoen eremuaren arabera egokitze arkitektonikorako proiektu-proposamena egitea da lanaren xedea, bai eta toki hori erakusketa-espazio bati dagokion ikus-entzunezko ekipamenduaz hornitzea ere, era horretako proiektu batek behar duen zehaztasun, sakontasun eta zabaltasunez.

Gogorak, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua den aldetik eskainiko duen dibulgazio eta zabalkunderako material guztiaren euskarria izango da erakusketa-espazio hori, batez ere ikus-entzunezko edukiak nabarmenduta.

Hala ere, proiektuen lehiaketa honen objektua ez da izango edukiak sortu, antolatu, editatu eta zehaztea, Gogora Institutuak berak egingo baitu zuzenean lan hori.



Erakusketa-espazio berria kanpoko eremu horretan ezarriko da.

Jarduketaren objektua den gainazala uharte-patio baten zati da gaur egun. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Maria Diaz Haroko kaleko 3 zenbakiko eraikineko sotoko solairuen gainean dago, hain zuzen ere. Patio hori Gogorari atxiki zaio Eusko Jaurlaritzako Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren 48/2021 Ebazpenaren bidez; 500 m² baino gehiagoko azalera du, baina azalera txikiagoan egin behar da jarduketa, sotoko solairu horiei argia ematen dien patioa irekidura errespetaturik.

Horrenbestez, lehiaketa honen objektu den eraikuntza sotoko blokearen estalkiaren gainean egingo da; baldintza hori garrantzitsua da eraikuntzaren proposamena definitzeko.

Era berean, hirigintzaren arloan nabarmendu behar da eraikuntza berriak Lurzoruaren Legearen Behin-behineko Erabileren Laugarren Atalaren zehaztapenak bete beharko dituela.

Aurkezten den proposamenak beti izan beharko du bideragarri arlo teknikoaren, hirigintza-arloaren eta aurrekontuaren ikuspuntutik, eta, erantsitako programaren zehaztapenak ez ezik, indarrean den nahitaezko araudia ere bete beharko du.

Obra-proiektuaren idazketa- eta zuzendaritza-lantaldea lizitzeko prozesuari dagokionez, ideien lehiaketaren prozeduraren bidez egingo du lizitazioa Gogora Institutuak. Ondoren, kontratazio negoziatuko prozedura bat hasiko da ideien lehiaketa irabazten dutenekin.

2 SUSTATZAILEA

Eusko Legebiltzarrak 2014ko azaroaren 27an onartutako 4/2014 Legearen bidez, Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoan memoria-arloko politika publikoak koordinatzen dituen Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomo gisa. Institutua 2015eko uztailaren 1ean hasi zen jardunean, eta haren Zuzendaritza Kontseiluan herrialdeko sentsibilitate politiko guztiek eta memoriaren arloko adituek parte hartzen dute.

Gogoraren xedea eta helburu orokor eta zehatzak zertuko diren espaziotzat hartu behar da erakusketa-espazioa:

Legeak hitzez hitz dioenari jarraikiz, hau da Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuaren xede nagusia:

«Erreskatatu, nabarmendu, oroitu eta transmititu behar ditu indarkeriazko gertakari larrien erdian duintasuna, berdintasuna, askatasuna... defendatzeko borrokatu ziren balio eta ahalegin demokratikoak».

Helburu orokorrej dagokienez, legearen zioen azalpenak lehen helburuaz eta azken helburuaz hitz egiten du:

«Lehen helburua da herritarren arteko elkarriketa sortzaile bat bideratzea, sustatzea eta adieraztea, iraganeko esperientzia sozial eta politikoki traumatikoetan elkarrekin bizi diren memorien arteko elkarriketa bat.

Azken helburua da laguntzea agora bat eraikitzen, dinamikoa eta emankorra, plaza publiko bat, balioen topagune sozial bat, berdintasun, askatasun eta demokrazia maila handiagoak lortzeko».

Artikuluetan, legeak berariazko lau helburu ezartzen ditu, eta honela adierazten ditu:

·Ekarpen kualitatiboa egitea euskal gizartearen askatasunaren aldeko borrokaren, giza eskubideen bermearen eta bizikidetza demokratikoaren oroimenean funtsezkoak diren balio etikoei eta printzipio demokratikoei buruzko politika publikoa diseinatzen, sustatzen, garatzen eta gauzatzen.

·Gure herriak askatasuna eta demokraziaren garapena defendatzen hainbat hamarkadatan mantendu duen prozesua gogoan, sustatzea etengabeko orotzapena egin dadin herritarrek prozesu hura ezagutzea, ulertzea eta kontzientzia hartzea bermatzen duten balio politiko eta sozialez.

·Gordetzea, garatzea eta zabalitzea memoriak eragin duen ondare kolektiboa, bizikidetza demokratikoaren oinarri diren balioen eta printzipioen defentsarena, biktimen lekukotasunean alderdi ordezkaezin bat duena.

·Institutuak bultzatu egingo du giza eskubideak eta bakearen balioak zabaltzeko, sustatu eta defendatzeko lana.

Herritarrentzako komunikazio-elementu gisa balio izango du erakusketa-espazio berriak, etorkizunerantz proiektutako bizikidetza normalizatu eta adostuan aurrera egin nahian, gure iragana izan denari buruzko gogoeta zintzoaren gainean oinarrituta.



Memoriaren Eguna 2017

3 AURREKARIAK, MEMORIAREN PLAZA


Gogora Institutuak Memoriaren Plaza erakusketa ibiltaria hasi zuen 2016ko urtarrilean, eta EAEko herri nagusiak zeharkatu ditu ordutik, memoriaren eraikuntzan gizarteak parte har dezan bultzatzeko.

Memoriaren Plaza erakusketak aukera ematen zuen bereiz entzuteko ETA, GAL, Batallón Vasco Español erakundeen terrorismoaren eta bestelako terrorismoen biktimen lekukotasuna eta bizi-esperientzia, poliziaren legez kanpoko indarkeriaren biktimena eta Gerra Zibilaren eta frankismoaren lekukotasunak.



Memoriaren Plazaren irudiak.

Ikus-entzunezko edukia duten azalpen-elementuen eta elementu interaktibo bidez, herritarrei eskatu nahi zitzaien gogoeta kritikoa egin zezatela EAEn gertatutako giza eskubideen urraketei buruz.



1. Zona de ponentes 2. Auditorio 3. Videowall 4. Cabinas de visualización de testimoniales 5. Pantallas de proyección
6. Cabina individual para grabación de testimonios 7. Área de participación activa

Memoriaren Plazaren banaketa.

Memoriaren Plazak ondo definitutako bost arlo zituen. Lehenengoak terrorismoaren biktimen senideen grabazioak biltzen zituen. Bigarren eremua poliziaren legez kanpoko indarkeriaren biktimen memoriari buruzkoa zen. Hirugarrenik, Memoria Historikoaren lekukotasunak biltzen ziren. Erakusketan toki bat zegoen, halaber, parte hartzen zutenek beren lekukotasunak grabatu edo idatz zitzaten, haien bidez beren sentipenak eta memoria adierazi, eta memoria kolektiboaren puzzle handia osatu ahal izateko.

Erakusketa-gunearen barruan, gogoetarako eremua handitzearen, indarkeriaren biktima izan direnen mahai-inguruak eta eztabaidak egiteko eremu bat ere bazegoen.

4 ERAKUSKETA-ESPAZIO BERRIAREN NORTASUNA

Memoriari buruzko erakusketa-proiektu bat eratzeak berekin dakar sormenezko eta ikus-entzunezko lengoia baten bidez iraganaren gaineko begirada denon esku jartzea. Lan hori erronka handia da, aniztasuna, elkarrizketa eta adostasuna bezalako tresnen bidez lortu nahi baitugu hori. Gogoraren 2017-2020 aldirako Jarduera Programak esparru kontzeptual bat eskaintzen du prozesu hori kudeatzeko. Hurrengo paragrafoak hitzez hitz hartu dira haren sarrerako III. puntutik.



Memoriaren Plazaren karparen kanpoko irudia.

«Iraganera begiratuz gero, ETAren amaierak gertatutakoari buruz eztabaidatzera garamatza. Eta, hala, berehala agertzen da memoria ezberdinak kudeatzeko zailtasuna. Memoria poliedrikoa eta gatazkatsua da, are gehiago mina oraindik egutegian hurbil ikusten denean. Gertaera urrutiagokoak gogoratzen dituen memorian, denboraren iraganak leundu egiten ditu ertzak; memoria hurbilean, aldiz, oraindik ere zorrotzak dira ertzak.

Horren harira, XXI. mendean partekatu behar diren gutxieneko oinarri etikoak identifikatzea da gakoa, memoriaren ikuspegiaren aniztasuna ez dadin etorkizunean aurrera egiteko eragozpen izan. Memorien aniztasuna kudeatzea eta gero guztiak bateratu ahal izateko gutxieneko oinarri etiko partekatu bat identifikatzea da, seguru

asko, memoriaren politika publikoak eta Gogora Institutuak –politika horren adierazpen instituzionala den aldetik– lortu behar duten erronka nagusia.

Auzi neuralgiko hori lantzeko, Jarduera Plan honen erreferentzia-esparrua Eusko Jaurlaritzaren 2017-2020ko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planean zehaztutakoa da. Eta, horri heltzeko, hona hemen bete beharreko hiru irizpide nagusi:

·Ez baztertu. Iraganera begiratzean ezin da baztertu terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketa bat ere, ez eta horien biktima bakar bat ere. Guzti-guztiak aintzat hartu behar dira, ikuspegi integrala jorratzeko.

·Ez legitimatu. Iraganari buruzko memoria kritikoa egitean ezin da onartu gatazkaren, bando arteko borrokaren edo justifikazio politikoen teoria, giza eskubideen beste urraketa batzuk edo beste edozein aitzakia erabiltzea terrorismoa edo indarkeria legitimatu, justifikatu, konpentsatu edo minimizatzeke.

·Ez garrantzirik kendu. Iraganari buruzko hausnarketa kritikoan halakorik ez errepikatzea lortu nahi bada, gogoeta ezin da generikoa soilik izan; berariaz eta modu berezian uko egin behar zaio edozelako terrorismo- edo indarkeria-kasuaren legitimazio, konpentsazio eta minimizazioari».

Azaldu bezala, Gogora sortzen duen 4/2014 Legeak eta 2017-2020 aldirako haren Jarduera Programak zehazten dute Gogoraren erakusketa-proiektua kokatu beharreko esparrua. Programa horrek erakusketa-estrategiaren gaiari buruzko gogoeta zabala egiten du. Jarraian, 2.3.3. puntuko paragrafoak laburbiltzen dira. *Bigarren zatiko azalpen-estrategia. 2017-2020 jarduera-programaren orientazioa:*

Erakusketaren gaiari buruzko gogoeta orokorra:

«Memoriari buruzko erakunde batek adierazpen-diskurtso eta -proiektu propioak izan behar ditu. Tresna hori da, hain zuzen ere, plan honen bigarren lehentasun estrategikoari erantzuna emateko baliabide nagusietako bat: "kalera eta herritarrengana memoriaren balio zehatza eta benetakoa hurbiltzea, eta, horretarako, bere gaitasun etikoa eta hezitzailea sustatzea, elkarrizketa, eztabaida eta gizarte-partaidetza sustatu ahala».

Hori dela eta, gaur egun erakusketa-ereduaren aldeko apustua egin baino lehen hausnarketa geldo eta bare bat egin behar da. Erakusketa-proposamen asko eta asko inauguratu eta hilabete gutxira zahartu eta iraungitzen dira, inbertsio garrantzitsuak egin ondoren. Hori dela eta, esperientziaz baliatu behar da, eta presazko erabakiak eta inprobisazioa baztertu.

Teknologia berriek –eta, horien barruan, ikus-entzunezko baliabideen eremu mugagabeak– guztiz eraldatu dute erakusketaren kontzeptua bera. Testuinguru horretan, erakusketa-proposamen batek erakartzeko eta irauteko duen gaitasunari buruzko gakoak eta gizarte-sentsibilitateak dinamikoak eta aldagarriak dira. Ondorioz, ondo egituraturutako hausnarketa geldoa egitea guztiz justifikatuta dago.

Gogora Institutuaren kasuan, zorionez, hausnarketarako denbora horrek ez du esan nahi memoriaren euskal erakundea erakusketa-proiekturik gabe geratuko denik. Eratu zen lehen egunetik, Institutuak Memoriaren Plaza erakusketa ibiltaria jarri du martxan, eta emaitza kuantitatibo eta kualitatibo garrantzitsua izan du, gizartean eta politikan jaso duen erantzunari erreparatuz gero.

Ondorioz, bi irizpide ezar daitezke Gogora Institutuak datozen bi urteetan erakusketa-atorrari nola helduko dion zehazteko: lehenik eta behin, Memoriaren Plaza erakusketa ibiltariarekin jarraituko da, eta, bigarrenik, epe ertaineko erakusketa-proiektuari buruzko azterketa-prozesu bat hasiko da».

Abiapuntuak:

«Oro har, erakusketa-proiektuak gutxienez honako ezaugarri hauek izan beharko ditu:

·Bisitariaren elkarrekintza sustatu behar du, eta memoriaren eraikuntzan parte hartzera eta hausnartzera bultzatu.

·Ikusizko mezua idatzizkoaren gainetik jarriko du, eta pentsarazteaz gain, sentiarazi ere egin behar du.

Aldi historikoak eta biktimizazio-arrazoiak bereizi behar ditu, eta berariaz baztertu behar du gertaerak justifikatzea edo gertaera batzuk beste batzuekin konpentsatzea.

·Bidegabekeriaren eta sufrimenduaren isla izateaz gain, egoera traumatikoetan erantzun positiboren bat eragin zuen alderdi oro islatu behar du.

·Denboran zehar irauteko eta dinamikoa izateko pentsatuta egon behar du.

·Aldizka eguneratzeak eta aldaketak egiteko aukera eman behar du.

·Neurtua eta proportzionatua izan behar du baliabideen gaineko inbertsioa egitean, bai martxan jartzeko orduan, bai berau mantentzeko orduan».

Erakusketa-diskurtsorako esparrua:

«Kontzeptu-mailan, erakusketa-espazio edo -formatu batetik pasatzean hiru une garrantzitsu aurkituko ditu bisitariak: sarrera, gure mikrokosmosetik atera eta bestelako mikrokosmos baterako sarbidea izango dena; irteera, emozio, sentsazio edo hausnarketa esanguratsuak eragiteko helburua duena; eta sarreraren eta irteeraren arteko espazioa, eragin sensorial eta intelektualeko erreferentziak sortuko dituena. Ohar hauek hiru puntu horien arabera egituratu dira, eta bisitari helduei, eskoletako ikasleei nahiz unibertsitate-ikasleei harrera emateko pentsatuta daude.

·Sartzean, paradigma-aldaketa

Memoria gizartearen bizikidetzeta hobetzea xede duen politika publikoa da. Memoriaren arazo nagusia autoafirmazio ideologiko, politiko, erlijioso, intelektual edo identitariorako

tresna hutsa bezala erabiltzen denean sortzen da. Hau da, iragana oraina justifikatzeko erabiltzen denean.

Ikuspuntu horretatik, ohikoa izaten da memoriaren aurrean gaudenean gure ikuspegia hartatik espero dugunaren arabera izatea; alegia, memoriari zer eskatzen diogun, ikuspegi horretatik behatzea. Hau da, gure ideologia berretsi eta justifika dezala, edo gutxienez ez gaitzala deseroso sentiarazi gure biografian, jarreretan edo usteetan.

Memoriaren politika publikoen sustapenean, hala ere, berrikuntza gako bat egon da: beste paradigma batean jartzea, hain zuzen. Kontua ez da soilik nik memoriari zer eskatzen diodan, baizik eta memoriak niri zer eskatzen didan planteatzea.

Ondorioz, bisitaria memoriari buruzko erakusketa batera sartzean, lehenengo iradokizuna autokonplazentziarako bidea ematen ez duen puntu batean jartzea da. Sartzean, honakoa galdetu behar da: zer eskatzen diodan, baina baita zer ematen diodan ere. Edo zer eskatzen diodan memoriari eta zer eskatzen didan berak.

Irtetean, lau galdera

Memoria kritikoa –hau da, autokonplazentzia helburu ez duena eta deserosoa izan daitekeena– galderen memoria da. Sentiarazteko eta pentsarazteko galderen memoria. Memoriari buruzko erakusketa bat bisitatu ondoren buruan izan ditzakegun hausnarketak honakoak bezalako interpelazioak izan daitezke:

- 1. Zer aldatuko nukeen gertatu zen horretan.*
- 2. Zer aldatuko nukeen egin nuen edo egin ez nuen horretan (zer egingo nukeen nik, non kokatuko ote nintzatekeen).*
- 3. Zer ez litzatekeen inoiz errepikatu behar.*
- 4. Zein balio positibo gorde beharko litzatekeen.*

Ibilbidean zehar, erreferentzia batzuk

Erakusketaren ibilbideak, plangintzak hala eskatzen duenean, bereizi egin behar ditu bai Memoria Historikoaren eta Orintsuko Memoriaren behin-behineko espazioak, eta baita hiru errealitate ezberdin ere: Gerra Zibila eta Diktadura, terrorismoa, eta poliziaren legez kanpoko indarkeria. Espazio eta errealitate horietako bakoitzera hurbiltzeko, elementu batzuk behar izaten dira: (1) gertatutakoari buruzko datu objektiboak; (2) bidegabekeriaren lekukotasunak, (3) erresilientzia demokratikoaren lekukotasunak, eta (4) erakusketan interakzioa edo elkarrekintza sustatzen duten beste elementu batzuk.

Hala ere, hori guztia bezain garrantzitsua (edo are garrantzitsuagoa) izan daiteke bizipen horiek sortzen dituzten tentsioei eta emozioei arreta egitea. Indarkeriaren bidegabekeriak sortu dituen traumen memoriaren oinarriko esperientziak horiek zeharkatzen dituzten lau tentsio emozionaletan laburbildu daitezke. Erakusketaren diskurtsoan eta baliabideetan, beraz, kontuan har litezke lau tentsio hauek:

·Heriotzaren eta bakardadearen arteko tentsioa.

·Bakardadearen eta elkartasunaren arteko tentsioa.

·Justiziaren eta bidegabekeriaren arteko tentsioa.

·Gorrotoaren eta maitasunaren arteko tentsioa».

5 LEHENDIK DAGOEN ERAIKINA

Eraikinak sotoko lau solairu ditu (lurzatiaren azalera osoa hartzen dute), eta Artxibo Historikoak erabiltzen ditu. Neurri hauek ditu: 20,0 m zabal x 68,5 m sakon. Sotoko solairuak argitzeko eta aireztatzeko, bi patio daude, bat lurzatiaren atzeko aldean (2,1 m zabal eta eraikinaren zabalera osoa), eta beste patio bat, lurzatiaren erdialdean (9,5 m x 5,0 m).

Sestraren gainean, eraikinak beheko solairu bat eta goiko sei solairu ditu, bulego-erabilerakoak. Eraikinaren zati horrek Maria Diaz Haroko kalera ematen du (20,0 m zabal eta 24,5 m sakon).




Bilboko Maria Diaz Haroko kaleko 3 zenbakiko eraikinaren fatxada nagusia.

Eraikinak gainazaleko zimendura du, eta zapata bakartuak ditu, 25 cm-ko ertzeko hondoko lauza batez elkarri txarrantzatuta. Ukondotuta edo behin-behinean finkatutako pantaila-hormen babesean induskatu ziren sotoko hormak.

Sotoko solairuetan euskarri-perimetrala dago pantaila-horman, eta tarteko euskarriak, hormigoi armatuzko zutabeekin (70x70 cm) bi zutabe-lerrotan; zutabeen arteko argia 6,2 eta 8,1 metro bitartekoa da.

Eraikinean forjaketa mota ezberdinak daude: batzuk gatzari lauen eta zeharkako gatzarien bidez eginak, zeinen gainean aurrelauza batzuk baitaude, eta noranzko bakarrek zeharkako gatzariez indartutako lauza trinkoen bidez egindakoak besteak. Jarduketaren eremuan, forjaketa 30 cm-ko lodierako lauza trinko batez osatuta dago,

eta luzetara indartuta dago forjaketaren barruan gelditzen diren hormigoizko zutabeek (60 cm x 80 cm).



Jarduketa-eremuaren azpiko -1 sotoko sabaiaren egituraren geometria.

Gogora Institutuak, eraikuntza berria patioko forjaketaren gainean jartzeko, haren egiturari buruzko azterketa bat agindu du. Ildo horretatik, ez da gomendatzen eraikuntza astuna egitea, eta erakusketa-pabiloia sistema arin baten bidez gauzatu beharko litzateke, eraikitze-metodo lehorrak erabiliz (zurezkoak edo altzairuzkoak). Ez da baztertzeko, halaber, egungo forjaketara indartzeko estrategia bat pentsatu behar izatea, egungo egituraren gaineko esfortzuak gutxiagotzeko.

Dokumentu honi erantsi zaizkio egitura-azterlana eta patioaren geometria eta egituraren kokapena jasotzen dituen oinplano kotatua.

6 HIRIGINTZAKO EGOERA

Hirigintza-baldintzei dagokienez, honako puntu hauek nabarmendu behar dira:

- Maria Diaz Haroko kaleko 3 zenbakiko eraikinak ekipamendu publikoko kalifikazioa du Hiri Antolamenduko Plan Orokor berrian, eta oraingo egoeran finkatuta du eraikigarritasuna.
- Patioak zortasun batzuk ditu, hots, aireztapen-argiztapenerako patioak, haren forjaketara beheko solairuaren mailan baitago.
- Jarduketa Behin-behineko Erabileren barruan sartzen da, indarrean den Lurzoruari buruzko Legearen 36. eta 37. artikuluetan ezarritako moduan:
 - o Kultura-erabilera da.
 - o Zuzkidura publikora zuzendutako lurzorian dago.

- Instalazioak adierazitakoa bete behar du desmuntatuak izateko eraztasunari dagokionez. Hala ere, eraikuntza bat izan behar da, eta ez karpa motako elementu bat.

7 JARDUKETAREN DESKRIBAPENA

Jarduketaren helburua da arkitektonikoki definitzea hala erakusketa-espazioak duen erabilera publikoaren eremua nola Gogora Institutuaren edukiak hartuko dituzten erakusketa-euskarriak.

Multzoa Bilboko Maria Diaz Haroko kaleko 3 zenbakian jartzea proposatzen da. Eraikin horretan daude Gogora Institutuaren bulegoak, eta errazagoa da, beraz, erakusketa-espazioaren kudeaketa.


Eraikin horrek uharte-patio bat du, eta horren azpian dago, gaur egun, EAEko Artxibo Historikoa. Kanpoko eremu horrek kalearekin lotura du eraikinaren beheko solairuko atartearen bitartez. Atartea beiraduna da, eta patiotik zuzenean ikusten da kalea, eta alderantziz; kota bera dago, halaber, bi aldeetan.



Erakusketa-espazioaren eremua (lauki gorria).

Memoriaren Plazaren oraingo erakusketak 400 m² inguru hartzen ditu. Jarduketaren xede den uharte-patioari dagokionez, toki erabilgarria atzeko aldean mugatuta dago, patio nagusia eta atzeko patioa errespetatu behar direlako, sotoko solairuei argia ematen diete eta. Ondorioz, azalera 530 m² ingurukoa da, baina asmoa ez da eremu hori guztia okupatzea, perimetroarekiko tartea utzi beharko baitira segur aski, eraikitzeko eta mantentze-lanetako kontuengatik.

Bolumen berriaren altuerari dagokionez, patioko horma perimetralaren altuerak mugatuta dago, kota hori gainditzerik ez baitago.



Erakusketa-espazioaren eremua (lauki berdea), eraikinaren sekzioarekin alderatuta.

Dauden zuhaitzei, ahal den neurrian, eutsi beharko zaie, edo, horretarako aukera egonez gero, lekuz aldatuko dira, jardinerarekin batera, tokiz aldatzea ahalbidetzen duen osoko irtenbide batean. Era berean, erakusketa-espazioaren eta eraikineko atartearen arteko oinezkoentzako lotura egin beharko da, eta ahalik eta erabilgarriena eta erosoena izan beharko da. Izan ere, eraikin nagusiaren atartearen eremu batzuk egongo dira erakusketa-espazioari laguntzeko; komunak, adibidez.

Aurreko ataletan adierazi bezala, proposatutako eraikuntza sistema arin eta lehor baten bidez egin beharko da, eta desmuntatzeko modukoa ere izan beharko da. Baldintza horietan egitea funtsezkoa da erakusketa-espazio berria modu egokian eratu ahal izateko.

Gainera, lehendik dagoen forjaketaren gainean ipiniko den eraikuntza-euskarriaren nolakotasuna bereziki zainduko da, sotoen iragazgaiztasunari kalterik ez egiteko.

Diseinuak kontuan hartu beharko du bolumena ahalik eta integratuena egotea patioaren eremuan, eraikinean eta zuzeneko ingurunean. Estalkiaren garrantzia nabarmendu behar da, bolumenaren kokapena dela-eta presentzia handia duelako. Haren arkitekturaren kalitatea zaindu eta nabarmendu beharko da, erakundearen nortasun-ezaugarri gisa, eta hirigintzako ingurunearen bilakaerari egokitzen saiatuko da.

Eraikuntza-mailan funtsezkoa izango da lehendik dagoen eraikinari lanen ondorioz deformazio, ur-sarrera, kalte eta bestelakorik ez eragitea.

Barneko eremuak koherentzia izan behar du Gogorak jarduketara-ildo estrategikoetan ezarritako diskurtsoarekin.

Arauei dagokienez, aplikatu beharreko eskakizun guztiak bete beharko dira, bereziki ergonomiaren eta ingurumenaren arlokoak.

Eraikinak erosotasunerako behar diren gutxieneko prestazioak eskaini behar ditu. Funtzionala izatea lortzeko, garrantzia handia izango dute tenperatura-konfortak, aireztapenak, elektrizitateak eta datuek. Ildo horretatik, nabarmendu behar da edukiak ez direla izango proiektuen lehiaketaren proposamenaren objektu, Gogorak kudeatuko baititu zuzenean. Erakusketa-euskarriak, ordea, bai diseinatu beharko dituzte multzoarekiko koherentzia zainduta; elementu horiek, gainera, eta, horrez gain, eremua erabiltzeko eta edukiak integartzeko malgutasun eta erraztasun handia eduki beharko dute.

Eduki gehienak ikus-entzunezkoak dira. Pertsonen aurpegiak irudiak eta haien lekukotasunak izango dira erakusketaren funtsezko zatia. Baina noiz edo noiz, beira-arasa batzuk ere beharko dira zenbait objektu hautaturentzako. Bisitariarekiko interakzioa bilatzea ere garrantzizkoa izango da.

Memoriaren Plazarako proposatutakoaren aldetik, aukera egon beharko da bereiz entzuteko ETA, GAL, Batallón Vasco Español erakundeen terrorismoaren eta bestelako terrorismoen biktimen lekukotasuna eta bizi-esperientzia, poliziaren legez kanpoko indarkeriaren biktimena eta Gerra Zibilaren eta frankismoaren lekukotasunak. Horretarako, irtenbideak eman beharko dituzte pertsonak eremuz eremu audioak entzuten joan ahal izan daitezen, baina audioen artean interferentziarik sortu gabe.

Patioarekiko interakzioa integrazio funtzional eta bisual modura izan behar da kontuan, patio horrek erakusketa-espazioarekin lotutako unean uneko ekitaldietarako ere balio dezake eta.

Mantentze-lanen arloko irizpideak kontuan izan behar dira proposamenetan, hala kostuei nola ekipamendu guztiak kudeatu eta ikuskatzeko erraztasunari dagokienez.

Erakusketa-espazioa banaka edo talde txikietan bisitatu ahal izango da, eta ikasle talde handiagoetan ere bai. Eraikuntzak egoera guztiei erantzungo die, eta fluxu eta zirkulazio koherenteak ahalbidetuko ditu kasu guztietan.

8 EKT BETETZEA – SEGURITASUNA SUTEAK DAUDENEAN

Adierazi den bezala, jarduketa lehendik dagoen eraikin bateko patio batean egingo da. Beraz, okupatzaileen ebakuazioa lehendik dagoen eraikinaren ataria zeharkatuz egingo da.

Aurkeztu beharreko proposamenak egoera hori aztertu beharko du, eta ebatzi nola ebakuatuko diren okupatzaileak eraikinaren ebakuazio propioa blokeatu gabe.

Aurreko azterketaren ondorioz, eskaintzan jaso behar da zer jarduketa egin behar diren lehendik dagoen eraikinean; jarduketa horiek ondoren egin beharreko prozedura negoziatuaren bidez kontratatzen den proiektuaren objektu izango dira.

Eraikinaren beheko solairuaren planoak erantsi dira eranskinetan. Plano horietan, eraikin nagusiaren beheko solairuaren sektoreak ikus daitezke. Ataria S1 sektorean dago; sektore hori -1 soto-solairura eta lehen solairura ere hedatzen da.

Eraikinaren kostuaren eta museografiaren kalkuluari dagokionez 10. puntuan adierazitako balorazio ekonomikoak ez du jasotzen lehendik dagoen eraikineko jarduketa. Baina gerora egin beharreko prozedura negoziatuaren ordainsariek bai jasotzen dute jarduketa osoa, lehendik dagoen eraikinari eragiten dion zatia barne.

9 PREMIEN MEMORIA

Gogoraren Zuzendaritza Kontseiluak 2019ko ekainean onartutako "Gogora Institutuaren erakusketa-proiektua definitzeko oinarriak" dokumentuan, definitzen da espazioa eremu ezberdinetan antolatuko dela; eremu horiek fisikoki argi bereizita egongo dira, gaiaren arabera, eta tratamendu propio eta autonomia izango dute.

Oinarri horietan ezarritakoa eguneratuz gero, erakusketa-espazioa azpiespazio hauetan banatuko litzateke:

- 1) Gerra Zibilaren eta Diktaduraren memoria; lehen eremua gutxiago garatuko da, bikoiztasunak saihesteko eta espazioen arteko osagarritasuna bultzatzeko -kasu honetan, 1937 Gernikako Bake Museoarekin-
- 2) ETAren terrorismoaren memoria
- 3) Eskuin-muturreko antolakunde terroristen memoria (GAL; BVE...)
- 4) Botere-gehiegikeriaren eta indarkeriaren erabilera bidegabearen ondoriozko eskubide-urraketen memoria.
- 5) Injustiziaren eta eskubide-urraketen aurkako erresistentzia demokratikoaren memoria, eta bakearen, askatasunaren, demokraziaren eta giza eskubideen defentsa eta sustapenaren aldeko konpromiso zibikoaren memoria.
- 6) Erakusketa bisitatzen duten pertsona eta taldeen arteko interaktuazioa eta parte-hartzea sustatzeko espazioa.

Memoria-aretoetan, oinarrizko edukiak lekukotza eta bideoen ingurukoak izango dira, batez ere biktimen ingurukoak; beraz, bereziki garrantzitsua da leku horietan ikus-entzunezkoak eta bitarteko interaktiboak jartzea. Horrekin batera, mahai interaktiboak, panelak eta bitrinak jarriko dira.

Gogora Institutuak 3 proiektzio-kanpai ditu, eta espazio berrirako utziko ditu. Gelen diseinuarekin koherenteak badira, erabili ahal izango dira, baina ez da nahitaezkoa horiek erabiltzea. Dokumentu honi erantsi zaio aipatutako kanpaiei buruzko informazioa (neurriak, geometria...).

Espazio horiez gainera, harrera-espazio bat jarri beharko da, ahal den neurrian sarrerak eta irteerak kontrolatzeko. Eremu horretan armairuak ere egongo dira, bisitarien materiala, motxilak eta txaketak gordetzeko. Ez da zertan komunik ezarri, eraiki nagusian daudenak erabiliko baitira.



Kanpaien irudia.

10 ORDAINSARIAK

Esan den bezala, ideien lehiaketa honen ondoren, prozedura negoziatu bat garatuko da, aipaturiko erakusketa-espazio berri horren exekuzio-proiektua idazteko eta obra zuzentzeko zerbitzuak kontratatzeko.

Ideien lehiaketa honetarako proposamena irabazten duen taldeak jarraian adierazten diren sarietatik lehenengoa eskuratuko du. Eta, gainera, talde hori bera hautatuko da exekuzio-proiektua idazteko eta obra zuzentzeko zerbitzuen prozedura negoziaturako.

Taula honetan adierazi dugu zein den jarduketarako zenbatetsitako aurrekontua. Aurrekontu horretan oinarrituta kalkulatu da zein izango diren exekuzio-obra idazteko eta obra zuzentzeko ordainsariak. Era berean, adierazi nahi dugu aurkezten diren proposamenek koherenteak izan behar dutela taula honetan azaltzen den aurrekontu-banakapenarekin.

ESTIMACIÓN DE PRESUPUESTO DE ACTUACIÓN			
COSTE ESTIMADO DE EDIFICIO Y MUSEOGRAFÍA	SIN IVA	IVA	CON IVA
COSTE ESTIMADO EDIFICIO	595.000,00 €	124.950,00 €	719.950,00 €
COSTE ESTIMADO MUSEOGRAFÍA	523.600,00 €	109.956,00 €	633.556,00 €
TOTAL IMPORTE ESTIMADO DE CONSTRUCCIÓN DE EDIFICIO Y MUSEOGRAFÍA	1.118.600,00 €	234.906,00 €	1.353.506,00 €

Ideien lehiaketa honetan emango diren sariak:

Jarraian, erakusketa-espazio berriaren proiektuetarako ideien lehiaketa honi dagozkion sariak agertzen dira. Deialdi honek 24.000 euroko zuzkidura ekonomikoa izango du guztira (BEZik gabe). Lehen, bigarren eta hirugarren sariak emango dira, honela:

PREMIOS CONCURSO DE IDEAS DE NUEVO ESPACIO EXPOSITIVO			
PREMIOS CONCURSO DE IDEAS	SIN IVA	IVA	CON IVA
PRIMER PREMIO	13.000,00 €	2.730,00 €	15.730,00 €
SEGUNDO PREMIO	8.000,00 €	1.680,00 €	9.680,00 €
TERCER PREMIO	3.000,00 €	630,00 €	3.630,00 €
TOTAL IMPORTE DE PREMIOS DEL CONCURSO DE IDEAS	24.000,00 €	5.040,00 €	29.040,00 €
GASTO PREVISTO POR ANUALIDADES:	SIN IVA	IVA	CON IVA
2021	24.000,00 €	5.040,00 €	29.040,00 €
2022	- €	- €	- €

Proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko kontratuaren balio zenbatetsia (ondoren egin beharreko prozedura negoziatuaren bidezko kontratua):

Apartatu honetan, adierazten dugu zein diren gerora egin beharreko prozedura negoziatuaren ordainsariak, proiektuak idazteko eta obrak zuzentzeko zerbitzuei dagozkienak. Deialdi honek 10.000 euroko zuzkidura ekonomikoa izango du guztira (BEZik gabe). Zerbitzuei dagozkien kopuruak honela banakatuko lirateke:

HONORARIOS DEL PROCEDIMIENTO DE CONTRATACIÓN NEGOCIADO QUE PUDIERA DESARROLLARSE CON EL EQUIPO GANADOR DEL CONCURSO DE IDEAS PARA LOS SERVICIOS DE REDACCIÓN DE PROYECTOS Y LA DIRECCIÓN DE LAS OBRAS				
LA VALORACIÓN DE HONORARIOS DE REDACCIÓN DE PROYECTOS Y DIRECCIÓN DE OBRAS SE REALIZA BAJO EL SIGUIENTE COSTE ESTIMADO DE OBRA Y EQUIPAMIENTO		SIN IVA	IVA	CON IVA
		1.118.600,00 €	234.906,00 €	1.353.506,00 €
HONORARIOS REDACCIÓN PROYECTOS Y DIRECCIÓN DE LAS OBRAS		SIN IVA	IVA	CON IVA
ANTEPROYECTO (5% DE LOS HONORARIOS)		5.872,65 €	1.233,26 €	7.105,91 €
COSTES DIRECTOS		4.521,94 €		
COSTE DE PERSONAL		3.843,65 €		
OTROS EVENTUALES GASTOS		678,29 €		
COSTES INDIRECTOS		1.350,71 €		
PROYECTO DE EJECUCIÓN Y DE ACTIVIDAD (60% DE LOS HONORARIOS)		70.471,80 €	14.799,08 €	85.270,88 €
COSTES DIRECTOS		54.263,29 €		
COSTE DE PERSONAL		46.123,79 €		
OTROS EVENTUALES GASTOS		8.139,49 €		
COSTES INDIRECTOS		16.208,51 €		
DIRECCIÓN DE OBRAS Y TUTELA PERIODO GARANTÍA (35% DE LOS HONORARIOS)		41.108,55 €	8.632,80 €	49.741,35 €
COSTES DIRECTOS		31.653,58 €		
COSTE DE PERSONAL		26.905,55 €		
OTROS EVENTUALES GASTOS		4.748,04 €		
COSTES INDIRECTOS		9.454,97 €		
TOTAL IMPORTE HONORARIOS REDACCIÓN PROYECTOS Y DIRECCIÓN DE LAS OBRAS		117.453,00 €	24.665,13 €	142.118,13 €
LOS HONORARIOS TOTALES SUPONEN UN 10,5% SOBRE EL IMPORTE ESTIMADO DE OBRA Y EQUIPAMIENTO.				
GASTO PREVISTO POR ANUALIDADES:		SIN IVA	IVA	CON IVA
2021		76.344,45 €	16.032,33 €	92.376,78 €
2022		41.108,55 €	8.632,80 €	49.741,35 €

11 IRIZPIDEAK

Adjudikazio-irizpideak, garrantzi handienekotik txikienera, haien haztapena eta ebaluatze modua.

A. Balio-judizioan oinarrituta kuantifikatu beharreko alderdiak, 100 puntu, banakapen honen arabera:

- (i) Proposamenak programaren eskakizunetara egokitzea, [40] puntu gehienez.
- (ii) Arkitektura- eta erakusketakalitatea, [35] puntu gehienez.
- (iii) Lehiaketaren objektuarekin lotuta proposatutako eraikuntza-sistemen eta lehendik dagoen eraikinaren arteko koherentzia, eta proposamenaren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta eraikuntza-arlokoa, [20] puntu gehienez.
- (iv) Jasangarritasunari eta energia-aurrezpenari buruzko irizpideak betetzea. Eta teknologiaren, gizartearen edo ingurumenaren arloko berrikuntzak gehitzea, [5] puntu gehienez.

Epaimahaiak aurreko irizpideak neurtuko ditu proposamen bakoitzean (guztizko balorazioa, 100 puntu).

SPKLren 146.3 artikuluan aurreikusitakoaren babesean, hautatzeko prozesuan onartua izateko gutun-azal honetan lortu beharreko **gutxieneko** puntuazioa **[45] puntukoa** izango da. Lizitatzaille bakar batek ez badu gutxieneko puntuazio hori lortzen, jabetzak bi aukera izango ditu: lehiaketa eman gabe uztea edo puntuaziorik handiena lortu duten [hiru] eskaintzak onartzea.

12 ESKAINTZAN BALORATUKO DEN PROPOSAMEN GRAFIKOA

Balorazio-irizpideen barruan, kontuan hartuko da zer diseinu proposatzen den eraikinaren bolumetriarako. Zehazki, dokumentu honetan adierazitako zehaztapen guztiekin bat datorren bolumetria-diseinuaren arkitektura-proposamena aurkeztu beharko dute.

Arkitektura-proposamenak bolumen berriaren kanpoko irudia garatu beharko du. Eta eskaintzan, hauek jasoko dira gehienez.

- Planoak eta irudiak, 3 DIN-A3 orrialde gehienez.
- Memoria, 4 DIN-A4 orrialde gehienez.
- Infografiak.
- Aurkezpen-bideoa USB batean.

Proposatutako eraikuntza-materialak edo -sistemak zein diren adierazi beharko da, eta proposatutako arkitektura-definizioa hobeto ulertzeko eta, horrela, behar bezala baloratzeko, beharrezkotzat jotzen den informazio guztia.

13 LIZITATZAILEAREN LANTALDEAREN ANTOLAMENDUA

Enpresek lan horretara gutxienez honako profesional hauek bideratzeko konpromisoa hartuko dute:

- Ordezkaritza bat, goi-mailako teknikaria (arkitektoa, industria-ingeniarria edo bideetako ingeniaria). Enpresaren ordezkaritza eta solaskidea izango da jabetzaren aurrean. Ordezkaritza hori ondorengo lerrokadan azaldutako gutxieneko lantaldeko kidea ere izan ahalko da.

- Hala proiektuak idazteko nola obrak zuzentzeko, gutxieneko lantaldean honako hauek egongo dira nahitaez: arkitektoa bat, ingeniari bat eta arkitektoa tekniko bat, eta horietako bakoitzak 5 urteko esperientzia izango du gutxienez. Arkitektoari dagokionez, gutxienez exekuzio-proiektu bat idatzita eta kultura- eta erakusketa-erabilerarako eraikin baten obra zuzendua izango behar du (obra hori exekutatzeko aurrekontuak 5.000.000 eurotik gorakoa izan behar du). Gutxieneko lantaldeko kide berak egongo dira bi faseetan, salbu eta behar bezala justifikatutako salbuespenezko arrazoiren bat dagonean.

- Era berean, hala proiektuak idazteko nola obra zuzentzeko, nahitaezkoa da taldean museografian aditua den pertsona bat sartzea; pertsona horrek arkitektura, arte, historia

edo artearen historiako titulazioa izan behar du, eta museologiako graduondoak edo antzekoak. Pertsona horrek gutxienez proiektu museografiko bat idatzia eta instalazio museografiko bat zuzendua izan behar du (obra hori exekutatzeko aurrekontuak 150.000 eurotik gorakoa izan behar du) Gutxieneko lantaldeko kide berak egongo dira bi faseetan, salbu eta behar bezala justifikatutako salbuespenezko arrazoiren bat dagoenean.

Enpresak dena delakoagatik lantaldeko kideren bat nahitaez ordeztu behar badu, espezialitate bereko eta esperientzia egiaztatu berdineko edo handiagoko beste teknikari bat jarri beharko du haren ordeiz. Gutxienez 15 egun lehenago jakinarazi beharko du, halaber, onartu dadin.

14 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA

Kontratuaren lizitazio-iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratu, eta hurrengo berrogeita bosgarren (45) egun naturalaren hurrengo eguneko HAMABIAK (12) ARTE.

15 INSTALAZIOAK BISITATZEA

Enpresa lizitatzailleek eraikin eta kontratuaren objektu diren eraikina eta espazioa ikuskatu ahal izango dituzte. Bisitak oinarriak kontratatzailearen profilean argitaratu ondorengo lehen hogeitau egunetan programatuko dira, eta iragarki bidez deituko dira, kontratatzailearen profil horretan.

Eskaintzak egin ahal izateko, instalazioak bisitatu beharko dira nahitaez, garrantzitsua baita edukaren xehetasunak eta eraikina kokatuko den espazioa ulertzeko. Bisitaziurtagiriak emango dira; ziurtagiri horiek eskaintzarekin batera aurkeztu beharko dira.

16 KAUDIMENA ETA GAITASUNA

Kaudimen tekniko eta ekonomiko-finantzarioa eta gaikuntza enpresariara egiaztatze bideak.

Lizitazio honetan parte hartzeko, lizitatzailleek bide hauen bitartez egiaztatu behar dute beren **kaudimena eta gaitasuna**:

a) Kaudimen ekonomiko-finantzarioa:

Lizitatzaillearen adierazpena, azken hiru ekitaldietako urteko negozio-bolumenik onenari buruzkoa, edo, bestela, sozietatea eratu denetik egondako onenari buruzkoa. Azken hiru ekitaldietako onenean gutxienez 60.000,00 euroko urteko gutxieneko bolumena egiaztatzen duten enpresek baino ezin izango dute parte hartu.

Erantzukizunpeko adierazpen bidez egiaztatu beharko da, prozeduraren edozein faseetan, hargatik eragotzi gabe entitate kontratatzaileak dagozkion egiazturtagiriak eskatzeko ahalmena izatea (urteko kontuak, auditorietza-txostenak, etab.).

b) Gaitasun teknikoa:

Azken hiru urteetan egindako lanik nabarmenenak edo emandako zerbitzurik aipagarrienak (lehiaketaren xedearen antzekoak), zerbitzu edo lan horien zenbatekoak, datak eta hartzaile publiko zein pribatuak ere aipatuta.

Kontratazio-organoaren mendeko zerbitzuek hala eskatzen dutenean, erakunde edo enpresa kontratatzaileak eman edo onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira lanak, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo ziurtagiri hori eduki ezean, lizitatzaillearen adierazpen baten bidez. Lehiaketan parte hartu ahal izateko, enpresek egiaztatu beharko dute azkeneko hiru urteetan egindako lanetako bat gutxienez honako lan mota hauetako bakoitzaren antzekoa dela, kontratuaren xedearen ildoarekin bat etorriz.

Kultura eta/edo Museoko erakusketa-espazioa egongo den eraikinaren obrak exekutatzeko proiektua, jarduera-proiektua idaztea eta obren zuzendaritza fakultatiboaz arduratzea (obra horien exekuzio materialaren kostuak 700.000,00 eurotik gorakoa izan behar du, edo guztizko ordainsariak, 70.000,00 eurotik gorakoak, BEZik gabe).

17 EPAIMAHIA

Aurkeztutako proposamenak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzailea eratuko da, honela osatua:

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzaren sailburuordea edo hark eskuordetzen duena.

Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuordea edo hark eskuordetzen duena

Gogora Institutuaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duena.

Arkitekto titulua duen pertsona bat, Bilboko Udalak izendatua.

Arkitekto titulua duen pertsona bat, Arkitektoen Elkargoak izendatua.

Arkitekto titulua duen pertsona bat, Gogora Institutuak izendatua.

Museografo titulua duen pertsona bat, Gogora Institutuak izendatua.

Gogoraren egituraren parte den teknikari bat, idazkari gisa jardungo duena.

18 DOKUMENTAZIOA

Lehiaketaren epaian behar den objektibotasuna babestearren, era anonimoan aurkeztuko dira proposamen guztiak. Horretarako, bi gutun-azal aurkeztuko dituzte: A eta C.

A gutun-azala.

A gutun-azal hau aurkeztu behar da: "Baldintza betetzen dela egiaztatzen duen agiria – A GUTUN-AZALA – GOIBURUA" jarrita lehiakideen anonimotasuna gordetzeko; dokumentazioan ez da inon agertuko lanen egilea edo egileak zuzenean edo zeharka identifika ditzakeen izen edo markarik.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira anonimotasunaren baldintza aldeaz edo moldez urratzen duten proposamenak.

Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren baldintza orokorren 13.1 klausulan adierazitako dokumentazioarekin batera, honako hauek jasoko ditu:

- a) Lehiatzen den pertsonaren edo enpresaren egiaztapena (NANaren fotokopia).
- b) Lehiatzen den taldearen zuzendari gisa proposatutako pertsonaren titulazioaren egiaztapena, Arkitektoen Elkargoak emandako ziurtagiriaren bidez (alta emanda dagoela adierazi behar da bertan).
- c) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea betetzeko konpromisoa, eta zinpeko adierazpena, zeinaren bidez adierazten baita pertsona edo erakunde eskatzailea ez dela ari betetzen inolako administrazio edo zigor arloko zehapenik sexu-jazarpenagatik, eta ez dagoela debeku horrekin zigortuta, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeari jarraikiz, edota dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galtzearekin, eta ez duela horretarako ezgaitzen duen legezko beste edozein debeku.
- d) Taldeari dagokionez, aurreko dokumentazioaz gain parte hartzeko barneko kontratua ere aurkeztu beharko dute, taldeko kide bakoitzak egin beharreko zereginak zehaztuta.

C gutun-azala

C gutun-azala aurkeztu beharko da: "Epaimahaiak parte hartuz egindako proiektu-lehiaketa, GOGORarena – C GUTUN-AZALA". Dokumentazio teknikoa.

Lehiakideen anonimotasuna gordetzeko, proposamen teknikoa IZENBURUpean aurkeztu behar da, eta dokumentazioan ez da inon agertuko lanen egilea edo egileak zuzenean edo zeharka identifika ditzakeen izen edo markarik.

Lehiaketatik kanpo geratuko dira anonimotasunaren baldintza aldeaz edo moldez urratzen duten proposamenak.

Edukia:

- Planoak eta irudiak, 3 DIN-A3 orrialde gehienez.

- Memoria, 4 DIN-A4 orrialde gehienez.
- Infografiak
- Aurkezpen-bideoa USB batean.

19 PROPOSAMENEN ANONIMOTASUNA.

GOIBURU batekin aurkeztuko dituzte lanak; goiburu hori dokumentu guztietan agertuko da, anonimoak izan daitezten, harik eta epaimahaiak epaia ematen duen eta, ondorioz, parte-hartzaileen administrazio-dokumentazioa eta identifikazioa jasotzen dituen A gutun-azala irekitzen den arte.

Lehiaketariek, proposamena aurkezteagatik soilik, hura ez jakinarazteko konpromisoa hartzen dute, dela bere kabuz edo taldeko edozein kideren bidez, Epaimahaiak epaia eman aurretik, anonimotasuna bermatzeko eta lehiaketaren objektibotasuna zaintzeko. Konpromiso hori ez betetzeak proposamena berehala baztertzea ekarriko du.

Lehiaketariek ezin izango dute lehiaketari buruzko komunikaziorik izan epaimahaiko kideekin. Oinarri honen edukia urratzen duten proposamenak baztertuko dira.

Anonimotasuna bermatu eta zaintzeko, baldin eta edozein posta- edo mezularitza-zerbitzuren bidez dokumentazioa bidaltzen badute, ez da gutun-azal edo paketeetan egongo igortzailearen izena, edo haren nortasunaren berri eman dezakeen beste edozein datu, daukan zigilu edo fitxa itsasgarririk. Horrela bada, kendu egingo ditu Kontratazio Zerbitzuak.

20 GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIA

Berdintasunean sentsibilizatzeko prestakuntza.

Adjudikaziodunak berdintasunaren arloko nahitaezko prestakuntzaz gain, prestakuntza-ekintza osagarriak ere antolatu beharko ditu derrigorrean, kontratuari atxikitako pertsonen berdintasunaren arloko sentsibilitate eta kontzientziazio handiagoa emateko. Organigraman zehaztutako pertsona guztiek jaso beharko dute prestakuntza hori (4 prestakuntza-ordu gutxienez). Era horretako prestakuntza egiten esperientzia frogatu dezakeen pertsonak eta/edo enpresak emango du prestakuntza.

PROIEKTURAKO IDEIEN LEHIAKETA

GOGORA INSTITUTUAREN ERAKUSKETA-ESPAZIO BERRIA

ERAIKINEKO PATIOAN (MARIA DIAZ HAROKOA, 3 BILBO)

ERANSKINAK

1 ERANSKINA -J ARDUKETAREN OBJEKTU DEN ESPAZIOAREN PLANOAK


Jarduketaren objektu den espazioaren planoak erantsi ditugu. Espazio hori barruko patio bat da, perimetroa harresiz inguratua. Patio horren azpian, eraikinaren sotoak daude.

Plano kotatuak aurkeztu ditugu, bata patioaren dimentsioekin, eta bestea sotoko solairuen egitura patio horren geometriaren gainean gainjarrita.

Gainera, beheko solairuaren plano deskriptiboa eta sektorizatua erantsi da.




Erakusketa-espazioaren eremua (lauki gorria).





Erakusketa-espazioaren eremua (lauki berdea), eraikinaren sekzioarekin alderatuta.

2 ERANSKINA – EGITURA-AZTERKETA

Apartatu honetan, eraikinaren egituraren txostena aurkeztu dugu, eraikuntza berria patioaren forjaketaren gainean jartzeko; hala, garatuko den proposamenak txosten horren zehaztapenak kontuan hartu beharko ditu.








metros
 metroak
 12982 C 014
 REV.
 BERRIK.
 1:100 A1
 1:200 A3
 PLANTA BAJA
 BEHE SOLAIRUA
 Mayo 2008
 2008 ko Maiatza
 12982
**Proyecto de Ejecución
 del Archivo Histórico
 Nacional de Euskadi
 Euskadiko Agiritegi
 Historiko Nazionalaren
 Burutze Proiektua**
 Gobierno Vasco
 Eusko Jaurlaritza
 Ion Zubiaurre Ros
 Javier Manjón Herrero
 Oscar Ferreira da Costa
 Natalia Gonzalez Matrelle
 Gonzalo Carro López
 ACXT
 idom

-  SALIDA DE EDIFICIO
-  SALIDA DE PLANTA
-  LIMITE DE SECTOR
-  RECORRIDO DE EVACUACION
-  25 DISTANCIA DE RECORRIDO DE EVACUACION EN METROS ENTRE ORIGEN O SALIDA DE PLANTA A OTRA SALIDA DE PLANTA
-  VI VESTIBULO DE INDEPENDENCIA
-  PP PASILLO PROTEGIDO
-  EEP ESCALERA ESPECIALMENTE PROTEGIDA

EUSKAL HEZIKERIA ARKITEKTOKEN ELK. OF.
EIZKAIKO ORDEZKARITZA
DELEGACION EN BIZKAIA
OF. DE LE ARQUITECTOS VASCO NAVARRO
IKUS-ONETSIA - VISADO
4 - MAYO 2009



metros
metros

12982 M 654

revisión:
berrituaketa: REV. BERRIK.

escala:
estala: 1:100 A1
1:200 A3

plano:
plano: PLANTA BAJA
BEHE SOLAIRUA
(SI / SS)

fecha:
data: Octubre 2008
2008 ko Urria

nº:
e zif: 12982

encargo:
enbarga: Proyecto de Actividad
del Archivo Histórico
Nacional de Euskadi
Euskadiko Agiritegi
Historiko Nazionalaren
Jarduera Proiektua

promotor:
sustatzailea: Gobierno Vasco
Eusko Jauriaritza

colabora:
laguntzailea: Ion Zubiaume Ros
Javier Manjón Herrero
Oscar Ferreira da Costa
Natalia Gonzalez Matrele

Agto responsable ACXT:
ACXT ar. anduraduna: Gonzalo Carro López

ACXT
idom

REVISION	FECHA	DESBUADO	COMPROBADO	REVISION	FECHA	DESBUADO	COMPROBADO

2 ERANSKINA – EGITURA-AZTERKETA

Apartatu honetan, eraikinaren egituraren txostena aurkeztu dugu, eraikuntza berria patioaren forjaketaren gainean jartzeko; hala, garatuko den proposamenak txosten horren zehaztapenak kontuan hartu beharko ditu.



Promotor

Expediente 1254

**Instituto de la Memoria, la Convivencia
y los Derechos Humanos, Gogora.**

Documento

julio 2018

**Estudio para la implantación de un pabellón de
exposiciones**

Índice

1	Introducción y objetivos.....	3
2	Antecedentes.....	4
2.1	Exposición itinerante Gogora	4
2.2	Propuesta actual de pabellón.....	5
2.3	Estructura del edificio	7
3	Análisis de la estructura	15
3.1	Modelo de cálculo.....	15
3.2	Análisis de resultados: Estado actual.....	21
3.3	Análisis de resultados: Propuesta.....	28
4	Conclusiones.....	32

1 Introducción y objetivos

A petición de la Aintzane Ezenarro en representación del Instituto de la Memoria, la Convivencia y los Derechos Humanos, Gogora, se redacta el presente informe con el objeto de analizar la posibilidad de colocación de un pabellón para exposiciones sobre la cubierta actual del Archivo Histórico Nacional de Euskadi, en la calle María Díaz de Haro 3, de Bilbao.

El edificio, de reciente construcción, consta de cuatro sótanos que ocupan toda la parcela, en los que se aloja el Archivo Histórico. Sobre rasante, ocupando sólo la fachada del solar, se ubica un edificio de oficinas.

La propuesta de pabellón ocuparía la casi totalidad de la cubierta del Archivo Histórico




Figura 1: Situación

2 Antecedentes

2.1 Exposición itinerante Gogora

El Instituto Gogora dispone actualmente de una exposición itinerante denominada Plaza de la Memoria, que consta de un material audiovisual que recorre diferentes emplazamientos de Euskadi y se aloja en una carpa desmontable. La intención del Instituto es la de crear un recinto que pueda alojar la exposición en los intervalos de tiempo entre un emplazamiento y otro, así como servir de local para otras actividades como exposiciones particulares, charlas, etc...

A tal efecto, se propone ubicar este espacio cerca de las oficinas de Gogora y el archivo que gestiona, esto es, en el edificio situado en María Díaz de Haro 3 en Bilbao.

Este edificio consta de un patio de manzana bajo el cual se aloja actualmente el Archivo Histórico de Euskadi. Este espacio exterior, conectado a la calle a través de la planta baja del edificio, se considera una implantación idónea para el nuevo pabellón de exposiciones, por su proximidad a las oficinas y archivos de Gogora, así como del Archivo Histórico y de su accesibilidad desde la calle.



Figura 2: Vista del patio de manzana

La exposición actualmente cuenta con una superficie de unos 400m². Teniendo en cuenta que el suelo disponible en el patio de manzana es de unos 530m², y considerando unas separaciones convenientes del perímetro y respecto a otros elementos del patio, se propone ocupar una superficie de no más de 260m², de manera que la exposición en este emplazamiento tendría un formato compacto respecto a la carpa itinerante.



Figura 3: Carpa exposición Gogora



Figura 4: Interior exposición Gogora

2.2 Propuesta actual de pabellón

En el momento de la redacción de este informe, se ha realizado ya una propuesta de pabellones expositivos, configurada por módulos de 3m x 3m formando un laberinto a

partir del recorrido de la exposición. De las imágenes disponibles de esta propuesta se deduce que los módulos son de hormigón armado, en forma de cajas de 9m² en planta y 3m de altura, y su disposición ocupa la casi totalidad del patio interior de manzana. Esta propuesta cuenta con una superficie de 234m².



